

AKORDIOA, III. SAILKAPEN TALDEKO (Kategoria profesionala: Teknikari espezialista, Espezialitatea: Iturgintza) LAN KONTRATUDUN LANGILE FINKOAK HAUTATZEKO PROZESUAREN EPAIMAHAIARENA. DEIALDI HORI 2018ko AZAROAREN 2ko ERREKTOREAREN ERABAKIAREN BIDEZ EGIN ZEN.

Epaimahai honek, 2019ko urriaren 3an bilduta, honako hau erabaki du:

LEHENENGOA.- Jakitera ematea hautagai bakoitzak azterketa egiteko unean, hasi aurretik, aukeratu ahal izango duela bai azterketa egiteko hizkuntza, bai egin beharreko ariketa praktikoa mota.

BIGARRENA.- Oinarri espezifikoen 3.1.2 puntuan adierazitako ariketa praktikoa egiteari begira, epaimahaiak gutxienez proposatuko dituen 5 kasu praktikotako bat ebaztea hautatzen duten pertsonak honako material eta dokumentazio hau erabili ahal izango dute:

- 30 zentimetroko erregela.
- Kalkulagailu zientifikoa.

HIRUGARRENA.- Ezingo da erabili ez telefono mugikorrik, ez Internetera konektatu daitekeen inolako gailu elektronikorik.

LAUGARRENA.- Akordio hau Pertsonaleko Gerenteordetzara igortzea, egoki diren bitartekoen bidez argitaratu dadin.

Leioa, 2019ko urriaren 3a

Epaimahaiko idazkaria



Libe de Agirre de Arriaga